

Heldu da Gasteizera “Birziklapenean jaiok gara”, herritarrak gehiago eta hobeto birziklatzera eta ekonomia zirkularraren alde egitera animatzeko

Erakusketaren helburua da informazioa ematea eta herritarrak kontzientziatzea hondakinak murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko eguneroko ohituren inguruan

Gasteiz, 2019ko azaroaren 15a. Itzuli da Gasteizera eta Arabara “Birziklapenean jaiok gara” kanpaina, herritarrak ekonomia zirkularraren alde egitera animatzeko eta, horrela, gero eta hondakin gutxiago sortu eta gero eta gehiago eta hobeto birziklatzeko. Atzodanik eta igandera arte, hainbat jarduera egingo dituzte herritarrak sentsibilizatzeko, aitzakiak alde batera utz ditzaten eta kontsumo arduratsuaren alde egin dezaten.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko diputatuak, Josean Galerak, eta Gasteizko Udaleko Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Saileko zinegotziak, César Fernández de Landak, kanpaina aurkeztu dute gaur goizean, zeina Arabako hiriburuko kaleetan egongo baita, 10etatik 14etara eta 16etatik 19etara.

Probintzia Plazara hurbiltzen direnek obra edukiontzi berrerabilietan antolatutako hainbat jardueratan parte hartu ahal izango dute, bai eta kalean egingo diren beste hainbat ekintza ludikotan ere:

CIRCULAR THINKING. Egin bat Euskadik ekonomia zirkularraren alde egindako apustuarekin. Pasa zaitez lineal pentsatzetik zirkularrean pentsatzera. Ikusi modu interaktiboan zer egin dezakezun apustu horren alde egiteko, kontsumoa murriztuz eta arduraz kontsumituz, berrerabiliz, hondatzen dena konponduz eta sortzen dituzun hondakinak birziklatuz.

ERAKUTSI BIRZIKLAPENEAN JAIOK GARELA Jolastu, dibertitu eta ikasi ikusmen-zolitasuneko, adierazpeneko eta mugimenduko probekin zer hondakin bota behar diren edukiontzi bakoitzean.

ONTZI ERRALDOIEN JOLASA Ezagutu eta birziklatu ez birziklatzeko jarri ohi ditugun 8 aitzakia nagusiak. Birziklatu zure aitzakiak, haietako bakoitzak konponbide bat du eta.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

EUSKAL HERRI KIROLAK Herri Kirolak egokitu eta zenbait joko prestatu ditugu, birziklapenean jaiok garelara erakusteko.

Kanpainak, gainera, esperientzia dibertigarria bizi nahi duten ikastetxeentzako eta taldeentzako zerbitzua du: jarduera eta bisita gidatu bereziak eskoletako taldeentzat. Erreserbak birziklatu@prismaglobal.es posta elektronikoaren bidez edo 637 211 151 telefonoan egin daitezke.

Araba, ekonomia zirkularraren alde

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak, Josean Galerak, gogorarazi duenez, “hondakin onena, sortzen ez dena”, eta nabarmendu du garrantzitsua dela “erakunde eta herritar guztiek elkarrekin lan egitea, gero eta gehiago eta hobeto birziklatzeko”. Horiek horrela, nabarmendu du Arabako Foru Aldundiak ekonomia zirkularraren alde egiten duela eta, horretarako, besteak beste, konpostaje sistema jarri duela abian Arabako herrietan.

“Ekonomia zirkularra gure garapenaren gakoa da, eta aukera emango digu era jasagarrian hazteko, gure natura ingurunearekiko begirunerik handienarekin. Beharrezkoa da gaikako bilketa eta banaketa tasak handitzea eta sortzen dugun hondakin kopurua murriztea”.

Vitoria-Gasteiz, munduko hiriburu berdea

Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Saileko zinegotziak, César Fernández de Landak, aldiz, gogorarazi du Gasteizek Global Green City saria jaso duela berriki, besteak beste, herritarren parte hartzeari esker. Eta horren isla dira birziklatzearen inguruko kopuruak: Gasteizek 22 kilo beira birziklatzen ditu, batez beste, urteko eta herritar bakoitzeko, estatuko batezbestekoa baino gehiago. Gainera, Gasteiz izan zen estatuko lehen hirietako bat ostalaritzan atez ateko bilketa sistema ezartzen. Beste material batzuei dagokienez ere, Gasteizko herritarrek jarrera ona dute, eta birziklatze tasak estatuko batezbestekoa baino askoz ere handiagoak dira paperari eta kartoiari (30 kilo/herritar eta urte) eta ontzi arinei dagokionez (19,5 kilo).

Zinegotziak honako hau nabarmendu du: “Hiriak funtsezkoak gara garapen jasagarria lortzeko. Arazoak orokorrak dira, baina erantzunak tokian-tokian eman behar dira. Ingurumen erronka handiak ditugu une honetan, eta Gasteizek alor honek eskaintzen dituen aukerak baliatuz egiten die aurre”.